



IKERKETA-EKINTZA PARTE- HARTZAILEA, EAE-KO KIROL- KLUBETAN KIROL SEGURUAREN INGURUKO AD HOC JARDUERA- PROTOKOLOAK DISEINATU ETA GARATZEKO

2025eko uztaila



Egileak

Andrea Sáenz Olmedo

Oidui Usabiaga Arruabarrena

Aitor Iturricastillo Urteaga

Juan Aldaz Arregui

Uxue Fernandez Lasa

Estíbaliz Romarate zabala Aldasoro

Ruth Cayero Alcorta

Nagore Martínez Merino

AURKIBIDEA

1. LABURPENA	4
1.1. Ikerketaren aurrekariak	5
2. SARRERA	7
2.1. Helburuak	8
2.2. Txostenaren egitura	9
3. IKERKETA-EKINTZA ESPERIENTZIA SASKIBALOI-KLUBEKIN	10
3.1. Metodologia	10
3.1.1. Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen ikuspegia	10
3.1.2. Proiektuaren diseinua eta lan-faseak	10
3.1.3. Ezarpena eta parte hartzeko saioak	11
3.2. Emaitzak	13
3.2.1. Kirolarien parte-hartzerik eza	13
3.2.2. Araudiaren eta eguneroko errealitatearen arteko arrakala	14
3.2.3. Harreman desagokiak eta botere-desparekotasunak normalizatzea	15
3.2.4. Sare sozialekin eta komunikazio pribatuarekin lotutako arriskuak	15
3.2.5. Praktika biolento naturalizatuek jarraitzea	16
3.2.6. Prestakuntza eta laguntza espezializatuaren beharra	16
3.3. Azken gogoetak	19
3.4. Mugak eta zailtasunak	23

4. PROZEDURA BESTE KIROL-KLUB BATZUETAN ERREPIKATZEKO	
GOMENDIOAK	25
4.1. Prozesua zuzenduko duen profesionalaren ezaugarriak	25
4.2. Klubarekiko harremana: inplikazioa eta betebeharrak	27
4.3. Lantaldeak osatzea eta kode etiko bat adostea: parte-hartzaileak hautatzea ...	28
4.4. Lan-saioen kopurua eta edukiak ezartzea.....	30
4.5. Jarduketa-protokolo espezifiko bat garatzea	33
4.6. Prozedura ebaluatzea eta optimizatzea etorkizunari begira.....	34
5. ERREFERENTZIAK.....	35
6. ERANSKINAK	40
6.1. Safe Sport Allies materialak	40
6.2. Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen saioak	41

1. LABURPENA

Txosten honetan, kiroleko indarkeriaren problematikaren azterketa zehatza egiten da – sexu-indarkeria bereziki aztertuta–, eta kirol-ingurune seguruak sortzeko esparru integral bat proposatzen da. Proiektu eraldatzaile honetan, ikerketa-ekintza parte-hartzailearen metodologia erabili zen saskibaloia-klubekin, eta, hori osatzeko, nazioarteko literatura zientifikoaren berrikuspen sakona egin zen. Ebidentziak nabarmentzen duenez, kirolean indarkeria-mota batzuen prebalentzia orokorra dago (sexuala, fisikoa, emozionala), eta, askotan, errendimenduaren eta botere-desoreken kulturak indarkeria-mota horiek normalizatzen ditu (Brackenridge, 2001; Vertommen et al., 2016). Arrakala kritiko bat identifikatzen da babes-politiken formulazioaren eta haien aplikazio eraginkorraren artean, eta arrakala hori areagotu egiten dute kirolarien parte-hartze faltak, salaketa jartzeko beldurrak eta ikuskapen independenterik ez egoteak (G. Kerr & Stirling, 2019; Lang, 2021; Mountjoy et al., 2022). Erronka sistemiko horiei aurre egiteko, txostenak funtsezko zutabeak artikulatzen ditu: atleten ahotsa ahalduntzea eta haien parte-hartze aktiboa sustatzea, eragile guztientzako prestakuntza eta hezkuntza integral eta egokiaren beharra, tresna biziak izango diren jarduketa-protokolo sendo eta eskuragarriak garatzea, zaintza eta segurtasun psikologikoaren kultura lantzea, eta kanpoko laguntzaren eta erakundeen arteko lankidetzaren ezinbesteko zeregina. Gomendioak honako hauetan oinarritzen dira: ikerketa-ekintza parte-hartzailearen prozesuak erreplikatzeko, epe luzearako jasangarritasuna ziurtatzeko etengabeko ebaluazioaren eta egokitzapenaren bidez, eta kultura-aldaketa sakona sustatzea, zeinak atleten ongizatea lehenetsiko baitu emaitzak lortzearen gainetik.

1.1. Ikerketaren aurrekariak

Azken urteotan, kirol-eremuko sexu-indarkeria arazo garrantzitsu gisa ikusten hasi da baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, hainbat ikerketa sustatu ditu, fenomenoaren garrantzia ulertzeko eta prebentziozko eta zuzentzeko jarduketara-ildoak ezartzeko.

Gai horren erreferente nagusietako bat "Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena kirolean" izeneko txosten teknikoa da. Txosten horrek estatuko eta nazioarteko literatura zientifikoaren berrikuspen sakona jasotzen du. Dokumentu horrek nabarmentzen du sexu-indarkeria ez dela kirol-mundutik kanpo geratzen, eta adin, diziplina eta maila guztietako kirolariei eragiten diela. Bereziki, honako hauei lotutako arrisku-faktoreak azpimarratzen dira: entrenatzaileek erabiltzen duten lidergo-mota, obedientziaren kultura eta entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanari datxekion botere-desoreka. Gainera, babes-politika espezifikoek dagokienez Espainiako testuinguruan dagoen gabezia azpimarratzen da. Horren eraginez, kasu horiek isilarazten dira eta ez da salaketarik jartzen.

Horren osagarri, esplorazio-azterketa kuantitatibo bat egin zen, EAEko 641 gazte unibertsitarioren laginarekin. Ikerketa horren bidez, 6 eta 16 urte bitartean kirol-jardunean bizi izandako sexu-indarkeriaren pertzepzioak eta esperientziak aztertzen dira. Emaitzek erakusten dutenez, inkestatuen % 13k diote sexu-indarkeriatzat jotzen diren portaerak bizi izan dituztela kirol antolatuko eta lehiatzeko kiroleko testuinguruetan.

Azkenik, azterketa kualitatibo bat egin zen, EAEko kirol-klubetan sexu-jazarpena jasan duten pertsonen kirol-jarduerari emandako esanahietan oinarrituta.

Elkarrizketa sakonen bidez, parte-hartzaileek azaldu zuten hasiera batean positiboak izan ziren esperientziak indarkeria- eta zaurgarritasun-gune bihurtu zirela. Narratibek eredu komunak erakusten dituzte, hala nola groomingaren presentzia, botere-posizioetan daudenek eragindako manipulazio emozionala, salaketa-mekanismo eraginkorrik ez egotea eta eragin psikologiko luzea. Txosten honek, banakako bizipenak ulertzeko bidea emateaz gain, kirol-eremuan sexu-indarkeriaren detekzioa, prebentzioa eta arreta hobetzeko funtsezko gomendioak eskaintzen ditu.

Oro har, hiru txosten hauek EAEko egoeraren panoramika argi eta kezagarria eskaintzen dute. Kirolak onura ugari sortzen ditu, baina, bestalde, abusuzko jokabideak eragin ditzaketen botere-dinamikak ere baditu. Bildutako ebidentzia enpirikoak prebentzio-politika integralak eta EAEko kirol-testuinguruaren berezitasunetara egokitutako jarduketa-protokoloak ezartzeko premia indartzen du, arreta berezia eskainiz haur-gazte etapari.

2. SARRERA

Kiroleko sexu-indarkeria nazioartean aitortutako problematika bat da, eta haren prebalentzia eta hura prebenitzeko eta hari eraginkortasunez heltzeko zailtasunak agerian jartzen dituzten azterlanak egin dira (Alexander et al., 2024; Kim, 2024). Azterketa sakon batek agerian utzi zuen eliteko kirolarien heren batek baino gehiagok (% 31k) –1.665 parte-hartzaileko lagin batetik Alemanian, Herbehereetan eta Belgikan– sexu-indarkeria motaren bat jasan zuela kirol antolatuan (Ohlert et al., 2020). Era berean, Europako proiektu berri batek erakutsi zuen 10.302 parte-hartzaileko lagin batetik % 35ek gorputz-kontakturik gabeko sexu-indarkeria jasan zutela, eta % 20k, berriz, gorputz-kontaktudun sexu-indarkeria pairatu zutela kirol-testuinguruan (Hartill et al., 2021).

Indarkeria mota hori prebenitzeko politika eta protokolo instituzionalak gero eta gehiago garatu diren arren, oraindik ere arrakala nabarmena dago haien arau-formulazioaren eta kirol-eremuan duten aplikazio eraginkorraren artean (Lang, 2021). Mountjoyk eta beste batzuek (2022) ohartarazi dutenez, klub askok ez dute babes-mekanismo horiek modu operatiboan aktibatzeke behar den ezagutzarik, baliabiderik edo egiturarik. Legez araututakoaren eta bizitakoaren arteko alde hori gertatzen da, neurri handi batean, klub edo kirol-komunitate bakoitzaren errealitate zehatzei behar adinako arretarik jarri gabe diseinatzen direlako estrategiak.

Ilido beretik, Lang-ek eta Hartill-ek (2015) diotenez, babes-politikek "goitik" hartzen dute ikuspegia, politika horiek ezarri behar diren kirol-inguruneen berezitasun kulturalak, antolakuntzakoak eta harremanetakoak kontuan hartu gabe. Ondorioz, protokoloak, askotan, urrun egoten dira eguneroko jardunetik, eta zaila izaten da protokolo horiek klubaren bizitza instituzionalean modu eraginkorrean sartzea (Lang, 2022; Matthews et al., 2024 eta McMahon et al., 2022).

Egoera horren aurrean, zenbait egilek defendatu dute prebentzio-neurrien diseinuan eta egokitzeapenean inplikaturik dauden eragileek modu aktiboan parte hartu behar dutela (Hartill, 2017; Lang, 2021). Ikerketa-ekintza parte-hartzailea izeneko metodologia bereziki erabilgarria da zentzu horretan; izan ere, arrisku-faktoreak identifikatzea ahalbidetzen du, klubetako kideen esperientziatik abiatuta, baina baita lehendik dauden protokoloak egokitzea ere, aplikatu behar diren testuinguruei modu errealista eta eraginkorrean erantzun diezaieten (Brackenridge, 2001; Lang, 2022).

Esparru horretan, Kirol Segurua proiektua ikerketa-ekintza parte-hartzailearen ikuspegitik egituratzen da, kirol-klubetan dauden sexu-indarkeria arriskuak eta moduak identifikatzeko, bai eta protokolo instituzionalak erakunde bakoitzaren errealitate espezifikoetara lankidetzan egokitze ere. Txosten honek esperientzia horretatik eratorritako emaitzak eta ikaskuntzak aurkezten ditu, bai eta beste kirol-testuinguru batzuetan aplikatu ahal izateko gomendioak ere.

2.1. Helburuak

Txosten honen helburua da Arabako emakumeen saskibaloia-klubekin egindako Kirol Segurua proiektuaren esparruan garatu den ikerketa-ekintza parte-hartzailearen prozesu baten emaitzak aurkeztea. Horretarako, honako helburu hauek ezarri dira:

- 1) Kirol-klubetako eragileek (zuzendaritza-batzordeko kideek, entrenatzaileek eta kirolariek) kiroleko indarkeriari buruz eta, bereziki, kiroleko sexu-indarkeriei buruz dituzten iritziak, pertzepzioak eta esperientziak aztertzea.

- 2) Parte-hartzaileen lankidetzak aktiboaren bidez, kirol-ingurunean sexu-indarkeria eragin dezaketen arrisku-faktoreak, espazioak, portaerak eta egoerak identifikatzea, arreta berezia jarritz klub bakoitzaren testuinguru espezifikoan.
- 3) Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen metodologiaren aplikagarritasuna eta egokitasuna baloratzea, kirol-klubetan erakunde- eta harreman-dinamikak eraldatzeko tresna gisa.
- 4) Beste kirol-klub edo -testuinguru batzuetan ere esperientzia hori aplikatzeko aukera emango duten gomendio transferigarri eta moldagarri batzuk egitea, ingurune seguruagoak sortzen laguntzeko.

2.2. Txostenaren egitura

Txosten honek hamar atal ditu. Hamar atal horiek aukera ematen dute Kirol Segurua proiektuaren garapenari modu argi eta progresiboan jarraitzeko. Kiroleko sexu-indarkerien arazoa testuinguruan kokatu eta prozesuaren helburuak azaldu ondoren, jarraian, erabilitako metodologia deskribatzen da, ikerketa-ekintza parte-hartzailean oinarrituta, eta parte hartu duten kirol-klubekin izandako lan-esperientzia zehazten da.

Ondoren, lortutako emaitza nagusiak aurkezten dira, eta prozesuaren inpaktuari eta aurkitutako zailtasunei buruzko gogoeta egiten da. Azkenik, esperientzia hori beste testuinguru batzuetan ere aplikatzeko gomendio praktikoak jasotzen dira, eta, ondoren, erreferentzia bibliografikoak eta txostenaren edukia osatzen duten eranskinak.

3. IKERKETA-EKINTZA ESPERIENTZIA SASKIBALOI-KLUBEKIN

3.1. Metodologia

3.1.1. Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen ikuspegia

Proiektu hau ikerketa-ekintza parte-hartzailearen paradigmaren barruan sartzen da; hau da, estrategia metodologiko bat da, ezagutza sortzea eta gizartea eraldatzea artikulatzen dituen, parte hartzen duten subjektuen zuzeneko inplikazioaren bidez (Kemmis et al., 2014). Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen abiapuntua da onartzea ezagutza kokatua – inplikaturako pertsonen esperientzia zehatzetatik sortzen dena– ezinbestekoa dela kiroleko sexu-indarkeria bezalako arazo konplexuei erantzun eraginkorrak emateko.

Ikerketa honen testuinguruan, ikerketa-ekintza parte-hartzaileak honako hauek ahalbidetu ditu:

- Klubeko eragile guztiak inplikatzeko ikertzailekide gisa.
- Diagnostiko parte-hartzaileak sortzea beren inguruneetako indarkeria-dinamikei buruz (berezi sexuala).

3.1.2. Proiektuaren diseinua eta lan-faseak

Metodologia-prozesua honako fase hauetan egituratu zen: (1) harreman instituzionala eta parte-hartzaileak biltzea, eta (2) Akordio etikoa eta taldeak eratzea

1. fasea: Harreman instituzionala eta parte-hartzaileak biltzea

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Eusko Jaurlaritzak (2024ko apirila) gutun ofizial bateratu bat egin zuten, Vitoria-Gasteizko saskibaloia-klubaren lankidetzaren eskatzeko, sexu-jazarpena eta sexu-indarkeria prebenitzeko protokolo espezifiko bat garatu eta ebaluatzen bideratutako proiektu baten esparruan.

Ondoren, harremanetarako proposamen pertsonalizatua bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzak hautatutako klubei, ikuspegia, helburuak eta eskatutako konpromisoa azaltzeko. Jakinarazpen horretan, gutxienez zuzendari batek, entrenatzaile batek eta 2-3 jokalarik parte hartzeko eskatu zen. Gonbidapena jaso arren, azkenean kirolariek ez zuten parte hartu. Hori aurrerago garatuko da, azterketaren muga garrantzitsu gisa.

2. fasea: Akordio etikoa eta taldeak eratzea

Parte-hartze instituzionala berretsi ondoren, lantalde mistoak eratu ziren (entrenatzaileak, zuzendariak eta teknikariak) klub bakoitzean. Irizpide hauek adostu ziren: borondatezko parte-hartzea, konfidentzialtasuna, errespetua eta errepresaliarik eza. Alderdi horiek funtsezkoak dira parte-hartzerako espazio seguru eta etiko bat sortzeko.

3.1.3. Ezarpena eta parte hartzeko saioak

Landa-lana zuzendariekin eta entrenatzaileekin egindako lau talde-saioren inguruan antolatu zen, “Zure taldekoak gara” izenburupean. Saiok metodologia aktiboak (dinamikak, talde txikietan lan egitea, kasu errealak aztertzea, egoerak bistaratzea) eta hausnarketa kritikoko tresnak konbinatu zituzten.

Topaketa bakoitzak helburu espezifikoak erantzun zien, eta aurreko saioetan adierazitakoa oinarri hartuta diseinatu zen, ikerketa-ekintza parte-hartzailearen egokitzapen-logika errespetatuz.

Saioek egitura progresiboa izan zuten, Safe Sport Allies programaren Intervention Mapping ikuspegiari oinarrituta (Adriaens et al., 2024) (ikus 1. eranskina) eta klub baliabide eta denboretara egokituta. Jarraian, saio bakoitzaren helburuak eta landinamika deskribatzen dira labur-labur (ikus 2. eranskina):

- a) 1. saioa: Klubetako indarkeria-egoeren hasierako identifikazioa eta lehen pertzepzioak (larritasuna, inpaktua, erakundearen erantzuna). "Mugako puntuen" sistemarekin lan egin zen, egoera erreala intentsitatearen eta ohiko erantzunaren arabera baloratzeko.
- b) 2. saioa: Hautatutako egoeretan sakontzea. Klubek eta parte-hartzaileek berek erantzuteko duten gaitasuna aztertzea. "Jarduketa-egiaztapena" ardatza sartu zen, bideragarritzat eta eraginkortzat jotzen ziren erantzunak baloratzeko.
- c) 3. saioa: Klub bakoitzak hautatutako kasuak berrikustea. Egoera bakoitzean hartuko ziren erabakiak, tartean zeuden agenteak eta jarduteko hautemandako oztopoak eztabaidatu ziren. Klub bakoitzak zehaztu zuen zer esku-hartze egingo zuen bere testuinguruan.
- d) 4. saioa: Esku-hartzearen inpaktua ebaluatzea eta beharrak aztertzea, klubetako errealitatea aldatu ahal izateko.

3.2. Emaitzak

Saskibalo klubetako zuzendariekin eta entrenatzaileekin egindako partaidetza-prozesuaren emaitzei esker, kiroleko indarkeriaren –eta, bereziki, sexu-indarkeriaren– prebentzioarekin lotutako egitura- eta kultura-problematika batzuk identifikatu ahal izan dira. Talde-laneko saioen bidez, pertzepzioak, esperientziak eta hobetzeko proposamen zehatzak jaso ziren. Jarraian, aurkikuntza nagusiak aurkezten dira, gaika antolatuta.

3.2.1. Kirolarien parte-hartzerik eza

Prozesuaren aurkikuntza garrantzitsu eta kezkarrienetako bat izan da kirolariak ikerketan zuzenean inplikatzeko zailtasuna. Ikerketa-taldeak eta zuzendaritzek ahaleginak egin dituzte kirolariak saioetara deitzeko, baina, hala ere, ezin izan da lan-saio bakar bat ere egin denboraldi osoan.

Inplikazio-falta horren arrazoiak askotarikoak dira, baina hainbat faktore komun errepikatzen dira: saio horiek zama gehigarri gisa hautematea, beren iritziengatik epaituak izateko beldurra, konnotazio "deserosoak" dituzten guneetara joatea eta, batez ere, horrelako gaiek "zuzenean eragiten ez dietelako" ideia. Zuzendari batek azaldu zuenez: "17 edo 18 urterekin zerbait eskatzen dien betebeharrak gisa ikusten dute, eta ez da haien lehentasuna". Badirudi indarkeriaz hitz egiteko deserosotasuna edo beldurra edota interesik eza parte-hartzearen inhibitzaile indartsuak direla.

Fenomeno horrek agerian uzten du egiturazko defizita dagoela aurretiko prestakuntzan eta sentsibilizazioan, bai klubetan, bai kirol-sistemetan. Zenbait zuzendarik adierazi zuten bezala, txikitatik lan jarraitua eta pedagogikoa sortzen ez bada, oso zaila da kirolariek espazio horien garrantzia ulertzea eta haietaz jabetzea.

Inplikazio falta horrek indartu egiten du haien errealitate, interes eta komunikazio-kodeetara egokitutako estrategiak sortzeko beharra.

3.2.2. Araudiaren eta eguneroko errealitatearen arteko arrakala

Behin eta berriz agertu zen gaietako bat izan zen ezarritako protokolo edo legeen eta klubaren eguneroko praktikan benetan gertatzen denaren artean dagoen aldea. Klub batzuek beren protokoloak garatu badituzte ere edo horiek egiteko kanpoko laguntza jaso badute ere, tresna horien benetako ezarpena mugatua eta, kasu askotan, sinbolikoa da oraindik ere.

Parte-hartzaileek argi eta garbi adierazi zuten protokolo bat izateak ez duela haren aplikazioa bermatzen, baldin eta hura aktibatzeke prestakuntzarik, giza baliabiderik eta erakundeen babesik ez badago. Erabaki askok –hala nola entrenatzaile bat zehatzea portaera desagokiengatik edo informazioa beste klub batzuekin partekatzea– legezko zalantzei aurre egin beharra eragin dezakete, eta salaketaren, difamazioaren edo klubak izen ona galtzearen beldur izatea ere sor dezakete. Zuzendari batek adierazi zuenez: "Bai egin nahi dugu zerbait, baina ez dakigu nola egin arazo batean sartu gabe".

Inpotentzia instituzionalaren sentsazio horrek agerian uzten du jarduketa-protokoloek ez dutela dokumentu administratibo hutsak izan behar, baizik eta benetako babes-egiturez lagunduta egon behar dutela: prestakuntzadun babes-ordezkariak, klubaren arteko sareak, lege-aholkularitza espezializatua, eta federazio- edo kirol-mekanismoak, klubak berak bakarrik jardun ezin duen edo bakarrik jardun behar ez duen kasuetan jardungo dutenak. Beste parte-hartzaile baten hitzetan esanda: "Egin dezakezun gehieneko gauza da protokoloarekin epaitzea, babes bat den aldetik. Baina mugan egoten jarraitzen duzu".

3.2.3. Harreman desegokiak eta botere-desparekotasunak normalizatzea

Entrenatzaileen (helduak edo gazteak) eta jokalarari nerabeen arteko harreman afektibo edo sexualen presentzia ere behin eta berriz aipatu zen. Harreman horiek, kasu askotan, normalizat edo "politizat" ere hartu ziren bere garaian. Denbora igaro eta gero, parte-hartzaileek onartu dute harreman horietan botere-desoreka zegoela, eta nerabezaroan zailtasunak zituztela lotura horiek abusuzko lotura gisa identifikatzeko.

Aurkikuntza horrek indartu egiten du ideia hau: egiturazko desparekotasunak eta prestakuntzarik ezak biktimei zein botere-harreman horiek erabat kontzienteak izan gabe gauzatzen dituztenei eragiten die. Nerabezaroa zaurgarritasuneko eta nortasuna eraikitzeko etapa bat da, eta kirol-ingurunean askotan harreman asimetrikoak indartzen dira, muga argirik ezarri gabe. "Ez da gauza bera harremana irakasle batekin edo entrenatzaile batekin izatea. Eskolan arauak daude, klubean ez ", adierazi zuen parte-hartzaile batek.

Hainbat estrategia proposatu ziren, hala nola: unibertsitate-adineko helduek (20 edo 21 urtekoek) jokalarari neraberik ez entrenatzea; entrenatzaileak hautatzeko aurretiazko elkarrizketak eta iragazki etikoak ezartzea, eta botere- eta berdintasun-harremanei buruzko prestakuntza espezifiko eskaintzea.

3.2.4. Sare sozialekin eta komunikazio pribatuarekin lotutako arriskuak

Beste kezka-eremu bat entrenatzaileen eta jokalararien arteko komunikazio zuzeneko kanalak erabiltzea izan zen, bereziki WhatsApp-a. Erabilgarritasun logistikoa aitortu bazitzaion ere, nabarmendu zen kontrolik edo gainbegiratzerik ezak abusuzko dinamikak edo dinamika desegokiak eragin ditzakeela, batez ere adingabeen kasuan. Honi buruz

ere eztabaidatu zen: komenigarria izan daitekeela kanal horietan hirugarren pertsona heldu bat (koordinatzailea, batzordeko kidea, legezko tutorea) sartzea beti, eta datu pertsonalik ez duten aplikazioak erabiltzea.

Aurkikuntza horrek lotura zuzena du etengabeko kontaktuaren normalizazioarekin, teknologiak aukera hori ematen baitu. Parte-hartzaile batek azaldu zuenez: "Lehen, zerbait arraroa bazegoen, entrenamenduan soilik bizi zenuen. Orain, edozein ordutan iritsi ahal zaizu, zauden tokian zaudela".

3.2.5. Praktika biolento naturalizatuek jarraitzea

Azkenik, entrenamenduetan eta lehiaketetan oraindik ere badauden indarkeria emozional eta fisikoaren formak identifikatu ziren, hala nola zigor fisikoak, hitzezko umiliazioak, oihuak, mespretxuak edo zehapen arbitrarioak. Kasu askotan, gogortasuna eta diziiplina lotzen dituen kirol-kulturak legitimatzen ditu praktika horiek. Kultura horrek gutxietsi egiten ditu ikuspegi pedagogikoak edo errespetuzkoak.

Gainera, adierazi zen jokabide horiek familia batzuek ere indartzen dituztela, hezkuntza-tresnatzat hartzen baitituzte ("hori ondo etorriko zaio espabilatzeko"). Parte-hartzaileek aitortu zuten zaila dela praktika horiek desagerraraztea inplikaturako eragile guztiekiko sentsibilizazio-lan sakonik egin gabe.

3.2.6. Prestakuntza eta laguntza espezializatuaren beharra

Zeharka, lan-saio guztietan, parte-hartzaileek adierazi zuten premiaz behar dela prestakuntza sistematikoa eta egokitua kiroleko sexu-indarkerien prebentzioaren arloan. Prestakuntza-gabezia hori, muga pertsonal gisa ez ezik, egiturazko oztopo gisa ere adierazi zen, zeinak zaildu egiten baitu denboran iraungo duen edozein prebentzio-aukera.

Zuzendari eta entrenatzaile askok aitortu zuten beren ibilbidean ez zutela inoiz arlo horretako prestakuntza espezifikorik jaso, ez teknikari gisa prestatzean, ez kudeatzaile gisa aritzean. Tresna falta horrek, kasu batzuetan, dinamika desegokiak normalizatzea eta alerta-zantzuak identifikatzeko zailtasuna eragin ditu. Haietako batzuek adierazi zuten arrisku-egoerekin bizi izan zirela, haiek aipatzeko edo esku hartzeko gaitasunik izan gabe. Horretaz hain berandu jabetzeak nabarmentzen du etengabeko hezkuntza espezifikoa eta kirol-testuinguruarekiko sentikorra behar dela.

Parte-hartzaileen proposamenaren arabera, indarkeriari, adostasunari, botereari eta jarduera etikoari buruzko edukiak sartu behar dira entrenatzaileen ikastaro ofizialetan, bai eta klubetako zuzendarientzako nahitaezko prestakuntzetan ere. Prestakuntza horiek praktikoak, eskuragarriak eta testuinguruan kokatuak izan behar dutela azpimarratzen da, eta saihestu egin behar direla esparru teorikoegiak edo eguneroko esperientziarekin loturarik ez dutenak.

Prestakuntza-eskari horrekin batera, adierazi da oso beharrezkoa dela klubei laguntzeko kanpoko laguntza-egiturak izatea, kasuren baten susmoak daudenean edo esku-hartze konplexuak egin behar direnean. Zuzendariak adierazi zutenez, bakarrik sentitzen ziren, zalantzez beteta, eta beldur ziren indarkeria-egoera posibleen aurrean jarduteko, batez ere ondorio legal eta sozialak edo izen onarekin lotutako ondorioak zirela-eta. Euren hitzetan, "protokoloa izan arren, epairik ez baduzu, ez dakizu ezer egin dezakezun arazoetan sartu gabe".

Segurtasun-gabezia horren aurrean, honako hauek izatea iradokitzen da:

- Sexu-indarkeriaren prebentzioan eta esku-hartzean prestakuntza espezializatua duten kanpoko pertsonak.
- Kluben arteko aholkularitza- eta lankidetzaz- sareak, zeinek aukera emango baitute esperientziak, tresnak eta protokoloak partekatzeko.
- Babes-ordezkarik edo batzorde etikoki independenteak, klubaren barne-egitura zuzenean arriskuan jarri gabe erabaki edo esku har dezaketenak.
- Kasuan kasuko kirol-federazioen laguntza eta babesa.

3.3. Azken gogoetak

Prozesu hori ikerketa-ekintza parte-hartzailearen ikuspegitik garatzeari esker, kiroleko sexu-indarkeriari buruzko ezagutza kokatua sortzeaz gain, problematika horrek bizi duen konplexutasun estruktural, kultural eta emozionaleko maila anitzak ikusarazi dira. Konponbide azkarrak edo linealak eskaini beharrean, prozesuak agerian utzi zituen sakonki sustraituta dauden tentsioak, eta tentsio horiek esku-hartze jarraitua, diziplinartekoa eta testuinguruan kokatua eskatzen dute.

Elementu nabarmenetako bat kirolariak zuzenean inplikatzeko zailtasuna izan zen. Hori ezin da soilik oztopo logistikotzat hartu. Lang-ek eta Hartill-ek (2015) planteatzen duten bezala, haien ahotsik ezak isiltze- eta baztertze-eredu historikoak errepikatzen ditu. Partaidetza- eta zaintza-kultura instituzional sendorik ez duen ingurune batean, parterik ez hartzea, berez, funtsezko datua da: beldurra, ezjakintasuna, mesfidantza, eta gazte-agentzia legitimotzat hartzen ez duen kirol-sozializazioa adierazten ditu.

Zeharkako beste dimentsio bat arau-esparruen eta benetako praktiken arteko arrakala izan zen. Klub gehienek jarduketa-protokoloak badituzte ere, dokumentu horiek ez dira bizirik egoten: ez dira ezagutzen, ez dira erabiltzen, ez dute konfiantzarik sortzen. Parte-hartzaileek behin eta berriz adierazi zuten, "protokoloak ez du babesten; hura aktibatzen eta prozesuan laguntzen dakiten pertsonak babesten dute". Baieztapen horrek indartu egiten du estrategia formal hutsei egiten zaien kritika akademikoa (G. Kerr & Stirling, 2019), eta mekanismo praktiko, komunitario eta jasangarriagoetan pentsatzea eskatzen du. Txosten honetako parte-hartzaile batzuek adierazi duten bezala, "protokoloa edukitzea ez da nahikoa, baldin eta protokolo hori beldurrik gabe, presiorik gabe eta kanpoko laguntzarekin aktibatzen dakien inor ez badago". Eskari hori bat dator kirola babesteko sistema integralen nazioarteko proposamenekin, zeinek barne-egitura konprometituak eta baliabide profesional independenteak konbinatzen baitituzte.

Era berean, beharrezkoa da babes-ordezkarik edo -arduradunei esleitutako zereginari erreparatzea, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren 8/2021 Lege Organikoak ezartzen duen bezala. Lege horrek, 47. artikuluan, adingabeekin lan egiten duten kirol-entitateetan ongizatearen eta babesaren arduradun bat izendatzeko betebeharra ezartzen du. Profil horren erantzukizuna da indarkeria-egoerak prebenitzea, detektatzea eta horietan esku hartzea, bai eta protokoloak eraginkortasunez ezartzen direla bermatzea ere.

Hala ere, hainbat azterketak ohartarazten dutenez (G. Kerr & Stirling, 2019; Lang, 2021; Lang & Hartill, 2015), arrakala handia dago figura horren legezko aitopenearen eta kirol-klubetan benetan duen eraginkortasunaren artean. Kasu askotan, erantzukizun hori dagoeneko klubaren egituraren sartuta dauden pertsonen dagokie, eta pertsona horiek ez dute ez independentzia funtzionalik, ez prestakuntza espezializaturik, ez eta beren lana eraginkortasunez egiteko behar diren baliabiderik ere. Egoera horrek, prebentzio-ekintza mugatzeaz gain, mesfidantza edo interes-gatazkak eragin ditzake bereziki sentsibleak diren kasuetan.

Figura horrek bere babes-funtzioa benetan bete dezan, literatura espezializatuak gomendatzen du klubaren egitura hierarkikotik kanpoko pertsona bat izatea, prestakuntza espezifikoa duena sexu-indarkerian, haurren eskubideetan eta zaintzaren etikan (Brackenridge, 2001; Mountjoy et al., 2022). Haren zeregina ez da izendapen formal batera mugatu behar; aitzitik, gidatu, lagundu eta autonomiaz eta sentsibilitatez jardun behar du testuinguru konplexuetan.

Era berean, agerian geratu zen errendimenduaren kulturak bere horretan jarraitzen duela, eta horrek tratu txarren hainbat modu justifikatzen dituela, diziplina edo exijentzia gisa normalizatuta. Oihu egitea, isilik egotera behartzea edo mespretxuzko komentarioak egitea, indarkeriazko dinamika asko ikusezin bihurtzen dira oraindik ere lehia-kirolaren kontakizun meritokratikoagatik. Saioetan eztabaidatu zen bezala, zorroztasunez entrenatzearen eta tratu txarrak ematearen arteko lerroa lausotu egiten da harremanen etika partekaturik ez dagoenean.

Era berean, adostasun- eta botere-eremu grisak hauteman ziren, bereziki entrenatzaile helduen eta jokalaria adingabeen arteko harremanen inguruan. “Afektiboa” denak, askotan, ezkutatu egiten du asimetrikoa, hierarkikoa edo hertsatzailea dena. Horrekin batera, sare sozialak eta txat pribatuak arautu gabeko kanal gisa erabiltzeak zaugarritasun-modu berriak ireki ditu, eta klubek oraindik ez dakite horiei nola heldu.

Azkenik, ikaskuntza garrantzitsuenetako bat kanpoko laguntzaren eta prestakuntzaren eskari jarraitua izan zen. Parte-hartzaileek ez zuten arau-esparru abstrakturik eskatu; laguntza praktikoa eskatu zuten, klubaren egunerokotasunera egokitua eta denboran irautekoa. Eta, batez ere, eskatu zuten prozesu horietan laguntzen duten pertsonak ez daitezela eremu juridiko edo psikologikotik bakarrik etorri, baizik eta barrutik uler ditzatela kirolaren logikak eta zubiak eraiki ahal izan ditzatela sentsibilitatearekin eta ezagutza kokatuarekin.

Ikerketa-prozesu parte-hartzaile hori ixteko, saioetatik eta azterketa kolektibotik sortu ziren ideia garrantzitsuenetako batzuk jasoko ditugu jarraian. Ondorio teoriko hutsetan geratu beharrean, parte-hartzaileek adierazitako bizipena, hausnarketa kritikoa eta eraldatzeko borondatea biltzen dituzten esaldietan oinarritzen dira.

Egindako bidearen ikaskuntzarik sakonenak eta irekita jarraitzen duten erronkak laburbiltzen dituzte titular hauek.

TITULAR BATZUK

- *Parte ez hartzeak ere komunikatzen du: kirolariek hitz egiten ez dutenean, sistema euren ordezkari hitz egiten ari da.*
- *Protokoloak ez du babesten: hura aktibatzen eta prozesuan laguntzen dakiten pertsonak babesten dute.*
- *Indarkeria diziplinaz mozorrotzen da errendimenduaren kulturaren; kultura hori isilik geratzen da jarrera desegokien aurrean, eta normalizatu egiten ditu.*
- *Afektiboa dena ez da beti inozentea: loturaren atzean boterea ezkutatzen den eremu grisak daude.*
- *Sare sozialak antzinako kontrol- eta abusu-moduetara sartzeko ate berriak dira.*
- *Prestakuntza kokaturik gabe, beldurrak paralizatu egiten du eta isiltasuna nagusitu egiten da.*
- *Prebentzioa ezin da erabat kanpora atera: barne-konpromisoa eta kanpoko laguntza kualifikatua behar ditu.*
- *Ez da nahikoa legeei edo psikologiari buruz jakitea: kirola barrutik ulertu behar da, eraldatu ahal izateko.*

3.4. Mugak eta zailtasunak

Testuinguru errealean aplikatutako ikerketa-ekintza parte-hartzailearen prozesu orok bezala, proiektu honek baditu zenbait muga eta zailtasun, eta garrantzitsua da horiek aintzat hartzea, ez soilik lortutako emaitzak hobeto ulertzeko, baizik eta baita etorkizunean egingo diren antzeko esku-hartze prozesuak doitzeko ere.

Kirolarien inplikazio zuzenik eza izan zen prozesuaren muga nagusietako bat. Ikuspegi metodologikoak klubaren bizitzan inplikaturako eragile guztien parte-hartze aktiboaren alde egiten bazuen ere, jokalariek ezin izan ziren proposaturako dinamiketan integratu.

Zailtasun hori arazo gisa planteatu behar da, kirolean indarkeria prebenitzeari buruz egin berri diren ikerketak kontuan hartuta. Zenbait egilek, eta bereziki (Lang, 2021, 2022), gazteen ahotsak aktiboki sartzearen garrantzia azpimarratu dute kirol-ingurune seguruak eraikitzeko. Hartill-ek (2017) dioenez, kirolariak politikak eta protokoloak diseinatzeko prozesuetatik kanpo uzteak logika helduzentriko bat erreproduzitzen du, non erabakiak "kirolarien onerako" hartzen diren, baina haien ikuspegia, agentzia eta arriskua ulertzeko moduak kontuan hartu gabe.

Gainera, Lang-ek (2022) argudiatzen du sexu-indarkeriaren prebentzio eraginkorrak eskatzen duela kirolariak babestu beharreko subjektu gisa ez ezik, honako hauek egin ditzaketen aldaketa-agentze gisa ere hartzea: arrisku-egoerak identifikatzea, mugak ezartzea, arauak sortzen parte hartzea eta zaintzaren kultura sortzea taldearen barruan.

Zaintzaren gaiari dagokionez, aipatu behar da zuzendariek eta entrenatzaileek nabarmendu duten beste muga bat dela lurralde-federazioak ez dituela babesten sexu-indarkeriarekin lotutako gaietan. Beste behin ere, horrelako arazoak ezkutatze joera dago, kirola mantentzeko eta parte-hartzaileen gainbeheran eragina izango luketen alarmismorik ez sortzeko.

Hartill-en arabera (2017), kiroleko sexu-jazarpena tabu da oraindik ere, modu sinbolikoan jarduten da horren inguruan, eta erakundeek berek naturalizatu egiten dute. Horrek zaildu egiten du kirol-eremuan sexu-indarkeria desagerrarazteko neurriak hartzea.

4. PROZEDURA BESTE KIROL-KLUB BATZUETAN ERREPIKATZEKO GOMENDIOAK

Atal honek orientabide praktikoak aurkezten ditu, Eusko Jaurlaritzak beste kirol-klub batzuetan ezar ditzan hemen garatutako ikerketa-ekintza parte-hartzailearen antzeko prozesuak. Gomendioak ez dira errezeta unibertsalak, baizik eta inplikaturako klubaren esperientzia kokatutik abiatuta eraikitako laguntzak, testuinguru bakoitzaren berezitasunetara egokitzeko pentsatuak.

4.1. Prozesua zuzenduko duen profesionalaren ezaugarriak

Prozesua gidatuko duenaren rola funtsezkoa da. Ezinbestekoa da bideratzaileak kirolaren mundua "barrutik" ezagutzea, eta sentsibiltatea izatea haren kode, denbora, hierarkia eta kulturekiko. Esperientziak erakusten du prozesuaren arrakasta, neurri handi batean, parte-hartzaileen artean konfiantza eta legitimitatea sortzearen mende dagoela (R. Kerr & Kerr, 2020; Lang, 2015).

Izan beharko lituzkeen ezaugarriak:

- Enpatiaz entzuteko eta emozioak kudeatzeko gaitasuna.
- Indarkerien –bereziki sexu-indarkerien– prebentzioari buruzko ezagutzak, ikuspegi intersektionalarekin.
- Askotariko taldeak kudeatzeko, erresistentziei eusteko eta aldaketa-prozesuetan laguntzeko trebetasuna.
- Kirol-ingurunearen ezagutza kokatua (hizkuntza, dinamikak eta rolak).
- Konpromiso etikoa eta sentsibiltate instituzionala.

Izan beharko lituzkeen ezaugarri orokorrako horiez gain, esperientzia honekin eta literatura espezializatuaren gomendioekin bat etorritik (Lang, 2021; Roberts et al., 2020), funtsezko ezaugarri hauek proposatzen dira:

a. Indarkeriari buruzko prestakuntza teknikoa

Ezinbestekoa da bideratzaileak prestakuntza sendoa eta eguneratua izatea sexu- eta genero-indarkeriaren prebentzioari, adostasunari, botere-dinamikei eta haurren eta nerabeen eskubideei buruz. Horrek barne hartu behar ditu bai lege-esparruak bai jardun psikosozialak. Lang-ek (2015) ohartarazten duen bezala, oinarri hori gabeko esku-hartze batek arriskua du estigmatik indartzeko edo indarkeriaren mekanismo errealak banalizatzeko.

b. Esperientzia praktikoa kirol-esparruan

Prestakuntza teknikoa bezain garrantzitsua da kirolaren ezagutza praktikoa. Hau da, kirol-espazioetan bizi izanak —entrenatzaile, koordinatzaile edo kirol-zientzietako ikertzaile gisa— aukera ematen du beste profil profesional batzuek agian atzeman ezin dituzten kode, hierarkia eta logika espezifikoak ezagutzeko. Praxia ezagutzea lagungarria izan daiteke kirolaren mikrokulturan naturalizatuta dauden ohiko indarkeria-portaerak identifikatzeko.

c. Bideratzeko, eusteko eta entzute aktiboko trebetasunak.

Prebentzio-prozesuek esperientzia sentzibleak ukitzen dituzte, eta zalantzak, erresistentziak eta emozio gogorrak sortzen dituzte. Horregatik, profil bideratzaileak jakin behar du askotariko taldeei eusten, denborak eta mugak errespetatzen, eta gogoeta sustatzen egiazki inposatu gabe.

Robertsek eta beste batzuek (2020) adierazi duten bezala, bideratzaileak gai izan behar du gidari, hezitzaile, bitartekari eta behatzaile kritikoaren rolen artean mugitzeko, eta oreka sortu behar du zaintzaren eta zalantza egitearen artean.

d. Kanpo-posizioa eta independentzia instituzionala

Rola klubetik kanpoko figura batek hartzea gomendatzen da. Distantzia horrek objektibotasuna errazten du, barne-hierarkiak hausten ditu eta parte-hartzaileei adierazpen-askatasun handiagoa ematen die, bereziki praktika naturalizatuak berrikusi behar direnean. Independentzia hori ere baloratu zen prozesuan; izan ere, parte-hartzaile askok adierazi zuten "askatasun handiagoz" hitz egiten zutela, beren egiturakoa ez zen norbaitek ebaluatzen zituelako. Ildo beretik, gomendatzen da profesional hori ez egotea lotuta kirol-kluben arloko goragoko mailako entitateekin (adibidez, lurralde-federazioekin eta EAEko federazioekin).

e. Ikuspegi kokatua eta prestakuntza Kirolaren Zientzietan

Esperientziak erakutsi du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziekin lotutako profil akademiko edo profesional bat bereziki erabilgarria dela horrelako prozesuen buru izateko. Prestakuntza horri esker, ezagutza teknikoa artikulatu daiteke kirol-jarduerak duen gorputz-, pedagogia- eta emozio-esperientziarekin. Ildo horretan, zubi-figura bat da: teoriaren eta praxiaren artekoa, babesaren eta kirol-kulturaren artekoa. Nolanahi ere, arloko aditu batek ebaluatu egin beharko ditu kirol-klubetan prozesu horiek bideratzeko ardura duten pertsonen ikuspegiak eta jarduteko moduak.

4.2. Klubarekiko harremana: inplikazioa eta betebeharrak

Klubarekiko lotura ezartzeak prozesu gardena izan behar du. Funtsezkoa da argi azaltzea helburuak, faseak eta beharrezko konpromisoak (denborak, pertsonak eta baliabideak). Hasierako komunikazioak elkarrekotasun-logika bat ezarri behar du, ez kanpoko esku-hartzearena, fiskalizazio-joera oro saihestuz. Egindako prozesuan, klub bakoitzarekin izandako lotura zuzendariekin egindako lehen bilera batean oinarritu zen. Bilera horretan, prozesua eta parte hartzeko baldintzak azaldu ziren, eta akordio etiko bat sinatu zen.

Horrelako akordioek –sinbolikoak badira ere– prozesuaren erantzukidetasuna indartzen dute, eta kanpo-fiskalizaziotzat hartzea saihesten dute. Timpka-ren eta beste batzuen (2019a, 2019b) arabera, hasiera-hasieratik erakundeen inplikazioa funtsezkoa da prebentzioa “asmo on ez-operatibo” batean gera ez dadin. Sexu-indarkeriaren prebentzioa ezin da erabat kanpora atera; izan ere, klubaren eguneroko kultura sostengatu, kudeatu, entrenatu eta koordinatzen dutenen konpromiso aktiboa eskatzen du.

Azkenik, komeni da adieraztea lehen kontaktu hori lehen iragazki etiko bat ere badela. Klub bat gutxieneko baldintza batzuk asumitzeko prest ez badago (funtsezko pertsonen presentzia, barne-berrikuspenera irekitzea, aldatzeko borondatea), hobe da esku-hartzea atzeratzea edo birplanteatzea. Benetako konpromiso-oinarririk gabeko partaidetza-prozesu bat behartzea ez da eraginkorra, eta, gainera, barne-erresistentziak indartu ditzake eta etorkizuneko ekintzak desakreditatu.

Gako praktikoak:

- Aldez aurretik bilerak egitea zuzendariekin.
- Akordio etikoak, lankidetzakoak eta gutxieneko konpromisoenak sinatzea.
- Rol bakoitzetik zer espero den argitzea (zuzendaria, entrenatzailea, jokalaria).
- Malgutasuna eskaintzea, zorroztasunik galdu gabe.

4.3. Lantaldeak osatzea eta kode etiko bat adostea: parte-hartzaileak hautatzea

Prozesuaren arrakastaren gakoetako bat da saioetan parte hartuko duen lantaldearen osaera arduratsu eta estrategikoa egitea. Garrantzi gutxiko alderdi logistikoa izan beharrean, parte hartuko dutenen hautaketak eragin zuzena du hausnarketan kalitatean, konfiantza-giroan eta klubaren barne-egiturak eraldatzeko aukeran.

Brackenridge-k eta Rhind-ek (2014) diotenez, kiroleko indarkeriaren prebentzioa modu interseksionalean eraiki behar da, kirol-inguruneko eragile garrantzitsu guztiak inplikatur: ez soilik autoritate formaleko posizioetan daudenak, baizik eta baita eguneroko praktikei eta pertsonen arteko harremanei eusten dietenak ere.

Lantaldeak 3 gomendio hauek bete beharko lituzke:

- Klubeko maila desberdinak (zuzendaritza, kidego tekniko eta kirolariak) ordezkaturko dituzten askotariko ikuspegiak. Estamentuen artean dauden hierarkiak direla-eta, bi talde sortzea gomendatzen da:
 1. Zuzendarien eta teknikarien taldea. Talde horren ardura izango da ikerketa-ekintza parte-hartzailea gauzatzea.
 2. Kirolarien taldea. Talde horretan, zuzendarien eta teknikarien taldearen lan-saioetan erabiltzeko datuak sortuko dira.
- Prestasun emozional eta etikoa, hau da, zintzotasunez inplikatzeko diren pertsonak, nahiz eta gaian "adituak" ez izan.
- Erakundearen konpromiso esplizitua, hausnarketak benetako proposamen bihurtzeko daitezkeela bermatzeko.

Gainera, funtsezkoa da hasieratik kode etiko partekatu bat adostea, parte hartzeko baldintzak ezarriko dituenak: konfidentzialtasuna, errespetua, judiziorik ez egitea, entzute aktiboa, eta erretiratzeko eskubidea, norbaitek bere burua gaindituta sentitzen badu. Akordio horrek ez du sinbolikoa soilik izan behar; idatziz jaso behar da, eta egoera konplexuetan berrikusi.

Lang-ek eta Hartill-ek (2015) adierazi duten bezala, ingurune seguru eta etikorik gabe, prebentzio-prozesuek isiltasun-, kontrol- edo saiheste-dinamikak erreproduzitzeko joera dute, eta dinamika horiek dira, hain zuzen ere, eraldatu nahi direnak. Hori indartu egin da gauzatutako prozesuan; izan ere, bereziki sentsiblea zen gai bat agertu zenean, parte-hartzaile batek honako hau esan zuen:

"Nik hau hemen esan dezaket, badakidalako ez dela talde honetatik aterako. Bestela, ez nintzateke ausartuko".


Segurtasun-sentsazio hori ez da berez sortzen; aitzitik, modu aktiboan eutsi behar zaio prozesu osoan. Horregatik, taldea ez da tresna metodologiko bat soilik; zaintza kolektiboko egitura bat ere bada, alternatibak imajinatzeko gai dena arlo instituzionala oraindik iristen ez den lekuetan.

4.4. Lan-saioen kopurua eta edukiak ezartzea

Hartutako ikuspegiaren gakoetako bat prozesu egituratu baina malgu baten diseinua izan da; izan ere, prozesu horren plangintzak aukera emango du hasierako diagnostikotik alternatiben eraikuntza kolektiborantz aurrera egiteko. Unean uneko prestakuntzetara edo edukiaren norabide bakarreko transmisioetara mugatu beharrean, esku-hartzea prozesu progresibo eta parte-hartzaile gisa antolatuko da, eta saio bakoitza aldezturik landutakoan oinarrituko da.

Safe Sport Allies Europako ereduak proposatzen duen bezala (Adriaens et al., 2024), kirol-inguruneetako prebentzio eraginkorrak honako hauek behar ditu: denbora, laguntza jarraitua eta testuinguruari eta taldearen sentsibilizazio-mailari egokitutako edukiak. Ildo horretan, prozesua gutxienez lau saiotan antolatzea gomendatzen da (1. irudia), eta saio batetik bestera denbora nahikoa uztea. Saio horiek gutxi gorabehera 90 minutukoak izango dira, eta kanpoko aditu batek bideratuko ditu.

1. irudia. Denboraldi bateko lan-saioen kronograma.



Hemen dokumentatutako prozesuan, saioak honela egituratu ziren:

1. saioa: Mugako egoerak eta lehen pertzepzioak mapatzea

- Helburua: boterea baliatzeari, gorputzari, loturei eta emozioei buruzko esperientzia problematikoak (anbiguoak edo agerikoak) identifikatzea klubean.
- Tresnak: tentsio-puntuen dinamika, adibideen analisi kolektiboa.

2. saioa: Oztopo pertsonalak eta instituzionalak

- Helburua: aztertzea zergatik kostatzen den indarkeria-egoeretan jardutea, zer beldur sortzen diren eta zerk baldintzatzen duen erabakiak hartzea.
- Tresnak: analisi-ardatzak (jardutea/ez jardutea, ziurtasuna/zalantza), eztabaida gidatuak.

3. saioa: Kasuen analisia eta proposamenak

- Helburua: parte-hartzaileek berek hautatutako kasu errealei heltzea, eta taldean pentsatzea zer erabaki har litezkeen errealitate horiek eraldatzeko, zer laguntzarekin eta zer baldintzatan.
- Tresnak: klubaren araberrako lana, erantzun-fitxak, egoeren diseinua.

4. saioa: Esku-hartzearen inpaktuaren ebaluazioa eta azken gogoeta

- Helburua: esku-hartzearen inpaktua ebaluatzea eta etorkizuneko jarduketak proposatzea. Era berean, jakintzaren mugei, erantzukizunari eta beldurrari buruz eztabaidatzea jakinarazte- edo susmo-egoeren aurrean.
- Tresnak: inpaktua ebaluatzeko adierazleen fitxa, etorkizuneko proposamenak jasotzeko fitxa.

Eskema hori parte hartzen duen klubaren edo kolektiboaren errealitatearen arabera egokitu daiteke. Garrantzitsuena ez da saioen kopuru zehatza, baizik eta progresio eta metatze logika bat egotea: lehenik, ulertu; gero, identifikatu; gero, proposatu; eta, azkenik, konpromisoak baloratu eta finkatu.

Lang-ek eta Hartill-ek (2015) adierazi duten bezala, prebentziozko esku-hartzeak eraginkorragoak dira faseetan garatzen direnean, taldearen erritmora egokitzen direnean eta parte-hartze aktiboa eta emozionalki segurua sustatzen dutenean. Progresibitate horrek, analisisian sakontzea ez ezik, hauek ahalbidetzen ditu: konfiantza-loturak sortzea, erresistentziak murriztea eta prozesuaz jabetzea areagotzea.

Egitura-iradokizuna:

1. Indarkerien partaidetza-diagnostikoa.
2. Erantzun posibleak aztertzea (jarduketa-egiaztapen eredua).
3. Kasu espezifikoak eztabaidatzea eta erabakiak hartzea.
4. Ebaluazioa, premien identifikazioa, laguntzak eta etorkizuneko konpromisoak.

4.5. Jarduketa-protokolo espezifiko bat garatzea

Dokumentu bat diseinatzea baino gehiago, klubeko pertsonak asunituko duten tresna bizi eta operatibo bat eraikitzea da kontua. Protokoloak saioetan landutakoa jaso behar du, jarduteko ibilbide argiak ezarri behar ditu, eta kanpoko laguntzak aurreikusi. Funtsezkoa da protokoloa bat etortzea klubaren errealitate eta gaitasunekin, eta benetako aktibazio-mekanismoak kontuan hartzea. Prozesu honek irakatsi digun gauza handienetako bat da "tiraderan gordetzeko" protokoloek ez dutela balio, kolektiboki lantzen ez badira. Literaturak iradokitzen duen bezala, protokolo erabilgarri batek eguneroko errealitateara egokituta egon behar du, eta aldizka berrikusteko modukoa izan behar du (Parent & Demers, 2011).

Funtsezko elementuak:

- Larritasunaren arabera bereizitako jardun-ibilbideak.
- Erreferentziazko figurak (kanpokoak) izendatzea.
- Protokoloa komunikatzeko, horri buruzko prestakuntza emateko eta mantentzeko estrategiak (kontrol- eta jarraipen-mekanismoak).

Roberts-ek eta beste batzuek (2020) adierazi duten bezala, protokoloek ezarpen-mekanismoak, prestakuntza espezifiko eta jarraipena izan behar dituzte, formalitate huts bihurtu nahi ez badute.

Prozesu horietan, kasu errealetatik eta egoera anbiguoetatik lan egin behar da, parte-hartzaileek beren klubean egokitzen, segurutzat eta bideragarritzat jotzen dituzten urratsak zehazteko. Hortik aurrera, "jarduteko gutxieneko eskema" bat sortzea sustatu behar da, hiru erantzun-mailarekin:

- Eguneroko prebentzioa (prestakuntza, mezu argiak, espazio seguruak).
- Detekzio goiztiarra eta zaintza (salaketa formalik gabeko jarduketak).

- Eraso edo jakinarazte baten aurrean jardutea (kanalak, arduradunak, laguntza legala eta emozionala).

Helburua da lortutako protokoloa erabilgarria, ulergarria eta partekatua izatea, eta ez artxibatutako dokumentu bat soilik. Protokoloan, honako hauek bermatu behar dira:

- Klubeko eragileek beraiek eraiki edo berrikustea, kanpoko adituen laguntzarekin.
- Hizkuntza argian idatzita egotea, eta adibideekin.
- Arduradunak eta jarduteko bideak definitzea, kasu motaren arabera.
- Kirolariei, familiei eta teknikariei modu eraginkorrean jakinaraztea.
- Urtero berrikustea, bizitako edo simulatutako egoeretan oinarrituta.
-

4.6. Prozedura ebaluatzea eta optimizatzea etorkizunari begira

Prozesua ez da amaitzen saioak ixten direnean. Inpaktua ebaluatzeko, ikaskuntzak partekatzeko eta aldaketei eusteko, epe ertain eta luzerako plangintza egin behar da. Parte-hartzaileek nabarmendu zuten beharrezkoa dela kanpoko laguntza jarraitua izatea eta klubaren arteko sareak sortzea, isolamendua saihesteko. Kanadako eta Australiako antzeko programen esperientziek erakusten dute jasangarritasunak plangintza esplizitua eskatzen duela (Gurgis et al., 2023).

Proposamenak:

- Amaierako ebaluazio-saio bat egitea.
- Klubaren arteko trukeko tokiko sare bat sortzea.
- Epe luzerako laguntzarako figurak edo entitateak ezartzea.

5. ERREFERENTZIAK

Adriaens, K., Verhelle, H., Peters, G.-J. Y., Haerens, L., & Vertommen, T. (2024).

The Safe Sport Allies Bystander Training: Developing a Multi-Layered Program for Youth Sport Participants and their Coaches to Prevent Harassment and Abuse in Local Sport Clubs. *Frontiers in Psychology*, 15, 1-11. <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2024.1389280>

Alexander, K. N., Adams, K. V., & Dorsch, T. E. (2024). "We Just couldn't Talk

About that": Unmasking Male Student-Athletes' Experiences of Emotional Abuse. *The Journal of Men's Studies*, 10608265241245912. <https://doi.org/10.1177/10608265241245912>

Brackenridge, C. H. (2001). *Spoilsports: Understanding and preventing sexual exploitation in sport*. Routledge.

Brackenridge, C. H., & Rhind, D. (2014). Child Protection in Sport: Reflections on Thirty Years of Science and Activism. *Social Sciences*, 3(3), 326-340. <https://doi.org/10.3390/socsci3030326>

Gurgis, J. J., Kerr, G., & Battaglia, A. (2023). Exploring Stakeholders' Interpretations of Safe Sport. *Journal of Sport and Social Issues*, 47(1), 75-97. <https://doi.org/10.1177/01937235221134610>

Hartill, M. J. (2017). *Sexual abuse in youth sport: A sociocultural analysis*. Routledge is an imprint of the Taylor & Francis Group, an Informa Business. <https://doi.org/10.4324/9781315726113>

- Hartill, M., Rulofs, B., Lang, M., Vertommen, T., Allroggen, M., Cirera, E., Diketmuller, R., Kampen, J. K., Kohl, A., Martin, M., Nanu, I., Neeten, M., Sage, D., & Stativa, E. (2021). *CASES: General Report. The prevalence and characteristics of interpersonal violence against children (IVAC) inside and outside sport in six European countries*. Edge Hill University.
https://figshare.edgehill.ac.uk/articles/report/CASES_General_Report_The_prevalence_and_characteristics_of_interpersonal_violence_against_children_IVAC_inside_and_outside_sport_in_six_European_countries/17086616/1
- Kemmis, S., McTaggart, R., & Nixon, R. (2014). *The Action Research Planner: Doing Critical Participatory Action Research*. Springer Singapore.
<https://doi.org/10.1007/978-981-4560-67-2>
- Kerr, G., & Stirling, A. (2019). Where is Safeguarding in Sport Psychology Research and Practice? *Journal of Applied Sport Psychology*, 31(4), 367-384. <https://doi.org/10.1080/10413200.2018.1559255>
- Kerr, R., & Kerr, G. (2020). Promoting athlete welfare: A proposal for an international surveillance system. *Sport Management Review*, 23(1), 95-103. <https://doi.org/10.1016/j.smr.2019.05.005>
- Kim, S. (2024). Sexual harassment, abuse and intimate relationships between coaches and athletes: A systematic review. *Sport, Education and Society*, 1-21. <https://doi.org/10.1080/13573322.2024.2379941>

- Lang, M. (2015). Touchy Subject: A Foucauldian Analysis of Coaches' Perceptions of Adult-Child Touch in Youth Swimming. *Sociology of Sport Journal*, 32. <https://doi.org/10.1123/ssj.2013-0083>
- Lang, M. (Ed.). (2021). *Routledge handbook of athlete welfare*. Routledge.
- Lang, M. (2022). Advancing children's rights in sport: Coaching, childhood agency and the participatory agenda. *Sports Coaching Review*, 11(1), 41-63. <https://doi.org/10.1080/21640629.2021.1990655>
- Lang, M., & Hartill, M. J. (2015). *Safeguarding, Child Protection and Abuse in Sport: International Perspectives in Research, Policy and Practice* (M. Lang & M. Hartill, Eds.). Routledge.
- Matthews, C. R., Barker-Ruchti, N., Coates, E., Lang, M., & Hardwicke, J. (2024). Children's rights, human development and play – rejecting performance-orientated youth sport. *Sport, Education and Society*, 1-12. <https://doi.org/10.1080/13573322.2024.2385556>
- McMahon, J., Lang, M., Zehntner, C., & McGannon, K. R. (2022). Athlete and coach-led education that teaches about abuse: An overview of education theory and design considerations. *Sport, Education and Society*, 1-15. <https://doi.org/10.1080/13573322.2022.2067840>
- Mountjoy, M., Vertommen, T., Tercier, S., Greinig, S., & Burrows, K. (2022). SafeSport: Perceptions of Harassment and Abuse From Elite Youth Athletes at the Winter Youth Olympic Games, Lausanne 2020. *Clinical*

Journal of Sport Medicine, 32(3), 297-305.
<https://doi.org/10.1097/JSM.0000000000000989>

Ohlert, J., Vertommen, T., Rulofs, B., Rau, T., & Allroggen, M. (2020). Elite athletes' experiences of interpersonal violence in organized sport in Germany, the Netherlands, and Belgium. *European Journal of Sport Science*, 1-10. <https://doi.org/10.1080/17461391.2020.1781266>

Parent, S., & Demers, G. (2011). Sexual abuse in sport: A model to prevent and protect athletes. *Child Abuse Review*, 20(2), 120-133.
<https://doi.org/10.1002/car.1135>

Roberts, V., Sojo, V., & Grant, F. (2020). Organisational factors and non-accidental violence in sport: A systematic review. *Sport Management Review*, 23(1), 8-27. <https://doi.org/10.1016/j.smr.2019.03.001>

Timpka, T., Janson, S., Jacobsson, J., Dahlström, Ö., Spreco, A., Kowalski, J., Bargoria, V., Mountjoy, M., & Svedin, C. G. (2019a). Lifetime history of sexual and physical abuse among competitive athletics (track and field) athletes: Cross sectional study of associations with sports and non-sports injury. *British Journal of Sports Medicine*, 53(22), 1412-1417.
<https://doi.org/10.1136/bjsports-2018-099335>

Timpka, T., Janson, S., Jacobsson, J., Dahlström, Ö., Spreco, A., Kowalski, J., Bargoria, V., Mountjoy, M., & Svedin, C. G. (2019b). Lifetime history of sexual and physical abuse among competitive athletics (track and field) athletes: Cross sectional study of associations with sports and non-sports

injury. *British Journal of Sports Medicine*, 53(22), 1412-1417.
<https://doi.org/10.1136/bjsports-2018-099335>

Vertommen, T., Schipper-van Veldhoven, N., Wouters, K., Kampen, J. K., Brackenridge, C. H., Rhind, D. J. A., Neels, K., & Van Den Eede, F. (2016). Interpersonal violence against children in sport in the Netherlands and Belgium. *Child Abuse & Neglect*, 51, 223-236.
<https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2015.10.006>

6. ERANSKINAK

6.1. Safe Sport Allies materialak

Eranskin horretan, proiekturako erabilitako materialak aurki daitezke. Azpimarratzekoa da talde hau osatzen duten ikertzaileek berek itzuli dituztela material horiek.

6.2. Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen saioak

Eranskin horretan, proiektuan zehar egindako saioetarako erabilitako materialak aurki daitezke.